

Maria Goikoak Batbirulau! app

Erabilerarako gida



MARIA GOIKOAK BATIBURLAU! APP

ERABILERARAKO GIDA

1. Zer da	2
2. Helburua	2
3. Non eskuratu	2
4. Baliabideak.....	2
5. Erabiltzaileak.....	3
6. Edukiak.....	3
7. Erabilera.....	4



ZER DA:

Galtzagorri Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin, eta [Oreka Interactive](#) enpresarekin elkarlanean, XXI. mendeko euskarrietara ekarri du Euskarazko Haur Literaturako klasiko bat, Anjel Lertxundi eta Antton Olariagaren *Maria Goikoak batbirulau!*

Liburu hau 2011n berrargitaratu zen Galtzagorri Elkartearen Klis-klasikoak bildumaren barruan. Eta hau da bilduma horretako lehen app-a.

HELBURUA:

Irakurzaletasuna sustatzen jarraitzeko beste bide batzuk saiatzea. Papera eta teknologia berriak uztartuz, tradizioa eta modernitatea batzen ditugu, eta, hortik literaturaz eta aisialdiaz euskaraz eta euskarri teknologiko desberdinen bidez gozatzeko aukera berri sortzen dugu. Hau da, papereko liburuari entretenimendurako eta aisialdirako aukera berriak eskaintzen dizkiogu euskarri digitalen bidez (mugikorra, tableta eta ordenagailua).

NON ESKURATU:

[Androidetarako](#) eta [iphone/ipad](#)-etarako bertsioan dohainik eskura daiteke bakoitzari dagokion saltoki birtualean, baina erabili ahal izateko ezinbestekoa izango da paperezko liburua esku artean izatea, alegia, papera eta jatorrizko obra teknologia berrien munduan murgiltzeko giltza izango dira.

Beraz, jolasekin gozatzeko eta liburuko hainbat orrialde errealitate areagotuan ikusi ahal izateko, derrigorrezkoa izango da paperezko liburua esku artean izatea.

Ordenagailuaren bidez ere erabil daiteke. www.galtzagorri.eus web gunean dago [ordenagailurako aplikazioa](#). Ikonoa klikatzearekin batera deskargatzen da hori martxan jartzen duen programa. Ordenagailuan erreproduzitu ezin den bakarra *Beste dimentsio bat* ataleko errealitate areagotua da.

BALIABIDEAK:

- Tableta/mugikorra
- Internet konexioa
- *Maria Goikoak Batbirulau!* Liburua

- *Jolas multzo bakoitzean joko bakarra dago hasieratik edonork erabiltzeko moduan. Besteek giltzarraoa dute eta hori askatzeko liburua behar da, liburuaren azala fokatzearekin askatzen dira giltzarraoak.*

ERABILTZAILEAK:

Maria Goikoak batbirulau! hurrek euren kasa nahiz helduen laguntzarekin irakurtzeko liburua denez, aplikazioa ere hurrek eta helduek bakarka nahiz elkarrekin erabiltzeko modukoa da; oso intuitiboa eta erabilgarria da, eta laguntza pantailak ere baditu.

EDUKIA:

Aplikazio honek jolasa eta entretenimendua ditu oinarri, eta euskara du ardatz nahiz bitarteko: euskarazko aho-korapiloak, ipuinak, kantu herrikoiak eta abar.

- **Hizkuntza erabiltzeko jokoak:**
 - Hitz-jokoak: bi daude audioarekin
 - Beste dimentsio bat:
 - Binetak ordenatu jokoan audioa entzuten da
 - “Urruti nire menditik” errealitate areagotua martxan jartzean Sakabi eta Egañazpiren kantu herrikoia entzuten da
 - Puzzlea: 3. Puzzlea osatzean kantu herrikoia moldatu bat entzuten da
- **Entrenimendu hutsa:**
 - Puzzleak: bi motatakoak daude
 - Piezadunak: bakoitzean bi puzzle daude eta 5 zailtasun maila
 - Laukidunak: ez dira errazak. Liburua esku artean izatea lagungarria da.
 - Beste dimentsio bat atala:
 - Sorgina hegalaria (azalpena bertan dator)
 - Oiloa galdu zaio Mari Domingori (azalpena bertan dator)

- 7 desberdintasunak:
 - Liburuko eta pantailako irudien arteko desberdintasunak aurkitu behar dira pantailan eta klikatu non den
 - Bilatzeko irudia handitu daiteke
- Memoria-jokoak: memoria-joko ohikoak dira. Antton Olariagaren liburuko irudiekin eginak. Jokaldi bakoitzean irudiak lekuz aldatzen dira.

ERABILERA:

- Tableta edo mugikorra piztu.
- Deskargatuta edukiz gero, ikonoa klikatu eta martxan jartzen da
- Menu nagusia:
 - Laguntza
 - Sarrera
 - Jokoak
 - Joko guztietan dator liburuaren orrialdearen erreferentzia.
 - Gehienetan liburua esku artean izatea lagungarria da:
 - Hitz-jokoetan, esaterako, erantzun zuzenak liburuan daude.
 - Beste dimentsio bat” ataleko “Binetak ordenatu” jokoan ere bineten ordena zuzena liburuan ikus daiteke. Jokaldi bakoitzean binetak desberdin desordenatuta agertzen dira.
 - 7 desberdintasunak jokoetan ere liburua behar da. Pantailako eta liburuko irudien arteko desberdintasunak bilatu behar baitira.
 - Puzzle laukidunak egiteko ere lagungarria da liburuko irudia ikustea

- Audioak

- Puzzleak: (108. Orrian) 3. Puzzle-jokoa amaitzean audioa entzuten da: "Ala kinkirrinera"ren Anduren moldaketa bat, Aitziber Alonsok abestua.
- Hitz-jokoak: (74. Orrian) 2. Hitz-jokoan audioa dago. Zein hizkiri buruz ari den jakiteko esaldia Irakur daiteke edo entzun
- Beste dimentsio bat:
 - 88. Orrian, Binetak ordenatu: irudi egokia aukeratzen den bakoitzean, dagokion pasarte entzuten da.
 - 134. Orrian, Urruti nire menditik abestia entzuten da errealitate areagotua martxan jartzean. Horretarako liburuan orrialde hori zabaldu eta tableta edo mugikorrarekin fokatu behar da. Abestia Sakabi eta Egañazpi trikitalariena da. Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen baimenarekin jarri duguna.